En la Casa Consistorial del M I Ayuntamiento de Auritz-Burguete siendo las 20,00 horas del día 19 de diciembre de 2013, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión ordinaria con la asistencia de los Sres. Concejales Dña Mª Roncesvalles Azanza Burusco, D. Juan Manuel Azanza Burusco y D. Alejandro Otegi Echeverría, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure, excusando su asistencia el concejal Sr. Martinez Rico, la concejala Sra. Oyarbide Lapazarán y el concejal Sr. De Potestad Tellechea,

**1.-APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE SESIÓN ORDINARIA DE FECHA 7 DE OCTUBRE Y EXTRAORDINARIA DE 10 DE OCTUBRE DE 2013.**

La Corporación acuerda por unanimidad la aprobación de las actas de sesiones celebradas los días 7 y 10 de octubre de 2013.

**2.- CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE ALCALDÍA DE 4 DE OCTUBRE A 12 DE DICICIEMBRE DE 2013.**

Informa el Sr. Alcalde del contenido de las Resoluciones de Alcaldía de 4 de octubre de 2013 a 12 de diciembre de 2013 que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados.

**3.- APROBACION PRESION FISCAL 2014**

Se propone por el Sr. Alcalde aprobar la presión fiscal para 2014 en los siguientes términos:

1.-Fijar el 0,2824 por ciento el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial urbana.

2.-Fijar el 0,80 por ciento el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial rústica.

3.-Fijar el 3,99 por ciento sobre el presupuesto de ejecución material el tipo de gravamen del impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras. (Tarifa mínima 30 €)

4.-Aplicar el índice 1,37 a las tarifas de impuesto de actividades económicas

5.-Aplicar los porcentajes 2,2, fijando el tipo de gravamen en el 8,6 por ciento respecto al impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana

6.-Incrementar el resto de las exacciones tributarias municipales con el IPC

Se acuerda por unanimidad, aprobar la Presión Fiscal del año 2013 en los siguientes términos:

1.-Fijar el 0,2824 por ciento el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial urbana.

2.-Fijar el 0,80 por ciento el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial rústica.

3.-Fijar el 3,99 por ciento sobre el presupuesto de ejecución material el tipo de gravamen del impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras. (Tarifa mínima 30 €)

4.-Aplicar el índice 1,37 a las tarifas de impuesto de actividades económicas

.5.-Aplicar los porcentajes 2,2, fijando el tipo de gravamen en el 8,6 por ciento respecto al impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana
6.-Incrementar el resto de las exacciones tributarias municipales con el IPC (2,6%)

**4.- PROPUESTA SOBRE ICIO POR MOTIVOS DE TEMPORAL DE NIEVE**
Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que no habiendo sido posible preparar la propuesta a planterar propone dejar este tema pendiente sobre la mesa.
La Corporación acuerda por unanimidad dejar pendiente este asunto para próxima sesión.

**5.- PROPUESTA CALENDARIO FIESTAS LOCALES**
Vista la propuesta de calendario formulada por el alcalde Sr. Irigaray, se acuerda por unanimidad aprobar el siguiente calendario de fiestas locales:

| | |
|---|---|
| Carnaval: | 1 y 2 de marzo |
| Feria Primavera o Santa Cruz: | 4 de mayo |
| Fiestas patronales de San Juan: | 20, 21, 22, 23 y 24 de junio |
| Feria de artesanía: | 15 de agosto |
| Feria de otoño: | 21 de septiembre |
| San Nicolas: | 6 de diciembre |

**6.- APROBACION DOCUMENTO DE PLAZAS DE ESTACIONAMIENTO DE VEHICULOS EN EL AREA DEL BIC.**
Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que respecto a las plazas de estacionamiento de vehículos que se exigen como requisito indispensable por el planeamiento del BIC para la ampliación de número de viviendas en las parcelas que este incluye, éstas al ser muchas exteriores no pueden quedar reflejadas en el catastro, a lo mucho pueden aparecer como pavimento, por ello y para que haya constancia de las mismas, propone crear un registro con las nuevas plazas de estacionamiento que se vayan generando. Añadiendo que este documento se considere como un anexo de la documentación del PEP siendo actualizado por la arquitecta municipal el cual servirá como herramienta de trabajo y control de normativa.
Estando de acuerdo con la propuesta realizada por el alcalde, se acuerda por unanimidad aprobar la creación de un registro que recoja las plazas de estacionamiento que se generen con la ampliación del número de viviendas en las parcelas incluidas en el BIC y que la arquitecta municipal se haga cargo del mismo.

**7- SOLICITUD DE AEK PIDIENDO MATERIAL INFORMATICO**
Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que da lectura a la petición realizada por AEK solicitando se les deje material informatico como fotocopiadora y tres ordenadores para el desarrollo y ejercicio de su trabajo.
Se acuerda por unanimidad dejarles el material informático solicitado.

**8.- ADHESION A CONVENIO DE COLABORACION ENTRE JEFATURA CENTRAL DE TRAFICO Y FEMP**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa de que se ha suscrito un convenio entre el Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico y la Federación Española de Municipios y Provincias para el intercambio de información y la mutua colaboración administrativa. Dicho convenio supone básicamente que el ciudadano pueda solicitar el cambio de domicilio tanto de su permiso de conducción como de su permiso de circulación, sin tener que desplazarse hasta las dependencias de la Jefatura Provincial de Tráfico. El Ayuntamiento remitiría periódicamente a la Jefatura Provincial de Tráfico a través del correo electrónico una relación de las altas y modificaciones de domicilio en el padrón solicitados por los ciudadanos para que desde las oficinas de tráfico se realizase el cambio tanto en el Registro de Conductores como e Infractores como en el Registro de Vehículos. Consiguiendo con ello a parte de un servicio al ciudadano, que todo ciudadano que se empadrone en este Municipio queda sujeto al pago del impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica de este Ayuntamiento.

Se acuerda por unanimidad:

1º.- Solicitar la adhesión íntegra al Convenio suscrito entre el Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico y la Federación Española de Municipios y Provincias para el intercambio de información y la mutua colaboración administrativa

2º.- Remitir a la Jefatura de Tráfico dicha solicitud, para que tras los trámites oportunos se concrete con la firma del Protocolo de Adhesión al Convenio entre el Alcalde y la Jefatura Provincial de Tráfico de Navarra, comunicando los datos del Ayuntamiento para su inclusión en la página web de la DGT y conocimiento del ciudadano.

**9.- INSTALACION WIFI Y PRESUPUESTO**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que explicando la posible instalación de la infraestructura de wifi que abarcaría todo el casco urbano proponiendo aprobar la oferta de instalación que consiste en la colocación de tres reemisores ubicados en la Casa Consistorial, Casa de Cultura y casa Erro o Loizu realizada por la empresa CHR Soluciones Informáticas, cuyo importe asciende a 2.000 €.

Además propone cobrar una tasa anual por vivienda para cubrir los gastos de mantenimiento de la red que una vez hechos los cálculos rondaría los 10 € por vivienda, a cobrar una vez aprobada la correspondiente ordenanza, ya que se trataría de un servicio más que este Ayuntamiento da a sus vecinos.

Estando de acuerdo con la propuesta realizada por el alcalde, se acuerda por unanimidad aprobar la instalación de Wifi en todo el casco urbano.

**10.- APROBACION INICIAL MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS**

Se informa por el Alcalde Sr. Irigaray, que es necesario aprobar tres modificaciones presupuestarias, la primera de ellas porque en los presupuestos del presente año la partida presupuestaria aprobada para las actuaciones forestales no es suficiente, la segunda porque la partida de actuaciones para el Sahara no estaba prevista al ser una actuación del año 2012 y la tercera, como la primera, porque la partida prevista para amortización préstamo es insuficiente. Por todo ello, procede aprobar las siguientes

modificaciones presupuestarias de conformidad con lo dispuesto en los artículos 212 y siguientes de la Ley Foral 2/1995 de las Haciendas Locales de Navarra:

1ª.- MODIFIACIONES PRESUPUESARIAS

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 1 447 69002 | ACTUACIONES FORESTALES | 14.500,00 |

| | |
|---|---|
| TOTAL MODIFICACION | 14.500,00 |

FUENTES DE FINANCIACION

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 1 870 | REM. TESORERIA PARA GASTOS GENERALES | 14.500,00 |

| | |
|---|---|
| TOTAL FUENTES DE FINANCIACION | 14.500,00 |

| | |
|---|---|
| CON CARGO A REMANENTE DE TESORERIA | 14.500,00 |

2ª.- MODIFIACIONES PRESUPUESARIAS

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 1 461 48201 | ACTUACIONES CAN SAHARA | 5.690,49 |

| | |
|---|---|
| TOTAL MODIFICACION | 5.690,49 |

FUENTES DE FINANCIACION

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 1 870 | REM. TESORERIA PARA GASTOS GENERALES | 5.690,49 |

| | |
|---|---|
| TOTAL FUENTES DE FINANCIACION | 5.690,49 |

| | |
|---|---|
| CON CARGO A REMANENTE DE TESORERIA | 5.690,49 |

3ª.- MODIFIACIONES PRESUPUESARIAS

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 1 011 93102 | AMORTIZACION PRESTAMO | 9.093,41 |

| | |
|---|---|
| TOTAL MODIFICACION | 9.093,41 |

FUENTES DE FINANCIACION

| PARTIDA | DENOMINACION | IMPORTE |
|---|---|---|
| 1 870 | REM. TESORERIA PARA GASTOS GENERALES | 9.093,41 |

| | |
|---|---|
| TOTAL FUENTES DE FINANCIACION | 9.093,41 |

| | |
|---|---|
| CON CARGO A REMANENTE DE TESORERIA | 9.093.41 |

Se acuerda por unanimidad aprobar las modificaciones presupuestarias formuladas, procediendo de conformidad con el artículo 276 de la Ley Froal 6/1990 a su exposición al público por espacio de 15 días hábiles en Secretaría municipal.

**Fuera del orden del día**, se acuerda por unanimidad tratar el siguiente asunto:
PROTOCOLO DE ADHESIÓN DE AYUNTAMIENTOS AL CONVENIO ENTRE EL CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL, EL GOBIERNO DE NAVARRA Y LA FEDERACIÓN NAVARRA DE MUNICIPIOS Y CONCEJOS SOBRE LA DETECCIÓN DE SUPUESTOS DE VULNERABILIDAD CON OCASIÓN DEL LANZAMIENTO DE VIVIENDA FAMILIAR Y MEDIDAS DE CARÁCTER SOCIAL.
Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa de que la FNMC suscribió un convenio con el Consejo General del Poder Judicial y el Gobierno de Navarra con el objeto de establecer un protocolo de actuaciones para atender a las personas que se encuentren en proceso de desahucio derivado de una ejecución hipotecaria o por impago de la renta y padezcan una situación de vulnerabilidad social por razones económicas o familiares.
El convenio establece que los servicios sociales de las entidades locales que se adhieran al mismo podrán ser requeridos para hacer una valoración de la situación de vulnerabilidad de las personas afectadas y, en su caso, adoptar las medidas que procedan.
Para participar en esta iniciativa, es preciso que el ayuntamiento adopte el acuerdo correspondiente y, en nuestro caso al pertenecer a una mancomunidad de servicios sociales de base, trasladar el asunto a la misma. Igualmente, es necesario que el acuerdo se comunique a esta Federación, que será la encargada de informar del mismo a los Juzgados de Navarra y al Departamento de Presidencia.

La Corporación acuerda por unanimidad:
1º.- Adherirse al Convenio entre el Consejo General del Poder Judicial, el Gobierno de Navarra y la Federación Navarra de Municipios y Concejos sobre la detección de supuestos de vulnerabilidad con ocasión del lanzamiento de vivienda familiar y medidas de carácter social, aceptando todas las cláusulas y condiciones que figuran en dicho Convenio.
2º.- Dar poder al alcalde Sr. Irigaray para la firma de adhesión al mencionado convenio, trasladando el acuerdo a los Servicios Sociales y a la Federación Navarra de Municipios y Concejos.

## 11.- INFORMACION VARIA

***Visita del señor consejero de Desarrollo Rural***

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que el pasado ocho de octubre y de una manera inesperada visitó la villa el señor consejero de Desarrollo Rural, donde pudo comprobar la nueva pista de Bidausi, además hablaron de forma informal del nuevo mapa municipal, la explotación de Mendiaundi y el proyecto Lindus.
La Corporación se da por enterada.

***Informes sobre Mendiaundi.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray que se ha recibido los informes de las diferentes secciones del Departamento de Desarrollo Rural en los que se basó la concesión del permiso de investigación. Que una vez estudiados pudo comprobar que el de Calidad Ambiental es negativo, el de Habitats plantea serias dudas, siendo solamente favorable el de Ordenación del Territorio. Que personalmente entendía que faltaba un informe de los servicios jurídicos, máxime cuando la explotación planteada quiere instalarse en un paraje clasificado con hábitats de interés de la ZEC Alduide, por lo que ha encargado uno al respecto al bufete de abogados Beaumont-Aristu.

La Corporación se da por enterada.

***PSIS del polígono industrial Urrobi.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray que por invitación del alcalde del Valle de Erro se celebró en Aurizberri/Espinal una charla informativa sobre la propuesta de ampliación del polígono donde el equipo redactor del proyecto insinuó que en la parcela dotacional se pudiera instalar un centro temático sobre yacimientos, a los que él respondió que el mayor yacimiento de la zona es Iturissa que se encuentra mayoritariamente enclavado en el término municipal de Auritz/Burguete, y que de hacerse algo, una vez valorado por los técnicos competentes esto será bien en el paraje de Zaldua o Zaldupea o bien en el casco urbano de esta villa como no podía ser de otra manera y es en lo que se está trabajando ya entre este Ayuntamiento y el Departamento de Cultura. Además preguntó si podría verse afectada la servidumbre de paso que tiene esta villa sobré los terrenos del concejo para ir a Urkitzeta a lo que se respondió que quedaría en vigencia no viéndose afectada mas que por un cambio de trazado. Finaliza diciendo que será cuando salga a exposición pública cuando se deberá valorar la conveniencia de realizar alguna alegación.

La Corporación se da por enterada.

***Pavimentación de calles.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que se ha comenzado la renovación de la pavimentación de la plaza del Ayuntamiento y parte de las calles Dorrekoa y Zubiarte donde se han modificado la acera planteada detrás de casa Bergara y se han recogido las pluviales del frontón y Casa Consistorial añadiendo que el arreglo de desagües y drenaje de casa Urrutia ha sido costeado por su propietaria. Que respecto a la calle San Nicolás, finalmente la Consejería de Fomento optó por asfaltarla desde la altura de las casas de Etxexuri y Aguio hasta la plaza Hermilio de Oloriz.

La Corporación se da por enterada.

***Proyecto Lindus.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray que se celebró un congreso sobre la migración de aves como colofón al Poctefa Lindus y donde desde la consejería de Desarrollo Rural se comprometieron a continuar durante el 2014 con el estudio y observación apoyado por acciones del proyecto Leader que tiene aprobado este Ayuntamiento.

La Corporación se da por enterada.

***Venta de lote de madera.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que se ha sacado a subasta un lote compuesto por 967 árboles de haya que cubican 1.552 $m^3$ y con precio base de licitación 32.120,66 euros en el paraje de Urdandegieta.

La Corporación se da por enterada.

***Casa Consistorial.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que tras la desocupación del piso de la Maestra se procederá por parte del Alguacil durante este invierno al derribo del piso del Maestro para reconvertirlo junto al sabaiao de la casa, una vez renovado el tejado y que posiblemente se llevará a cabo en 2014, para convertirlo en dos apartamentos. Que al respecto se ha puesto en contacto con la arquitecta María Urtasun Larrat. Que la idea es a continuación renovar en el piso de la Maestra, destinando el del Secretario y el antiguo centro parroquial para oficinas municipales que vendrán definidas con la futura reagrupación de servicios y nuevo mapa local. Por último cabe la posibilidad de ceder los pisos del Alguacil y Médico al Gobierno de Navarra para su reconversión en dos viviendas y un alojamiento, pero que esto último habrá que estudiarlo mas a fondo.

La Corporación se da por enterada.

***Casa Arreserena.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray que tras visita ocular del inmueble girada por el arquitecto de la oficina de Nasuvinsa Sr. Mujica, éste ha determinado de forma verbal que el edificio no está en ruina técnica y le transmitió una serie de reparaciones en paredes, tejado y carpintería a realizar para evitar su deterioro y peligrosidad y que transmitidas al propietario, ya ha realizado las del tejado y paredes.

La Corporación se da por enterada.

***Modificación de la estructura del Departamento de Desarrollo Rural.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que como consecuencia de las recientes modificaciones en el Departamento el jefe de negociado de la comarca pirenaica Sr. Oyaregui Arriada va a ser sustituido en breve y quiere dejar constancia del agradecimiento personal por el interés y dedicación mostrada en los temas agrícolas y forestales que durante estos años y como alcalde le ha tocado tratar con él.

La Corporación se da por enterada.

***Luz del frontón Josta-Leku.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray que se ha repuesto los ficheros de moneda de la luz del frontón ya que los anteriores debido al vandalismo habían quedado inservibles.

La Corporación se da por enterada.

***Reunión con la dirección del Servicio Navarro de Emergencias.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que junto al presidente de la Junta General de Aezkoa, mantuvieron una reunión con el director señor Ezpeleta en aras a recabar información sobre los movimientos que se están dando con la ambulancia de la comarca, garantizando el señor Ezpeleta el mantenimiento de la base y el servicio en todo momento.

La Corporación se da por enterada.

***Euromontana.***

Informa el alcalde Sr. Irigaray que el pasado 9 de diciembre se celebró una jornada en la casa de cultura donde se expusieron los objetivos del programa, se presentaron diversos proyectos de desarrollo llevados a cabo en zonas de montaña.

La Corporación se da por enterada.

***Piscina de Antsobi***.
Informa el alcalde Sr. Irigaray de que desde la Confederación Hidrográfica del Ebro han anulado la autorización para el baño de la piscina fluvial, que al respecto ha pedido una prórroga de tres años justificándolo para estudiar las soluciones a adoptar y la necesidad del pozo en caso de incendio forestal para proveer de agua al helicóptero de bomberos.
La Corporación se da por enterada

***Nueva págima web municipal.***
El alcalde Sr. Irigaray informa que la nueva página web municipal ha entrado hoy en funcionamiento siendo más dinámica y actual que la anterior.
La Corporación se da por enterada

**12.- RUEGOS Y PREGUNTAS**
No se formulan.

Y no habiendo más asuntos que tratar siendo las 21,00 horas del mismo día se levanta la sesión de lo que doy fe.

---------------------------------

Aurizko Udaletxean, 2013ko abenduaren 19an, 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Mª Roncesvalles Azanza Burusco, Juan Manuel Azanza Burusco eta Alejandro Otegi Echeverría, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure; Martinez Rico, Oyarbide Lapazaran eta Luis De Potestad Tellechea zinegotziek etortzerik ez dutela jakinarazi dute.

**1.-1.- 2013ko URRIAREN7KO BILKURA ARRUNTA ETA URRIAREN 10EKO BILKURA BEREZIAREN AKTEN ONESPENA.**
Udalbatzak erabaki du aho batez 2013ko urriaren 7an eta 10ean egindako osoko bilkuren aktak onartzea.

**2.- 2013ko URRIAREN 4tik ABENDUAREN 12ra ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**
Alkateak jakinarazi du 2013ko urriaren 4tik abenduaren 12ra eman dituen ebazpenak, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun daude.

**3.- 2014KO ZERGA TASAK. ONESPENA**
Alkateak proposatu du 2014ko zerga tasak onartzea eta ondoren aipatzen direnak izatea:
1.-0.- Ehuneko 0,2824ko karga-tasa jartzea hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko
0.-Ehuneko 0,80ko karga-tasa jartzea landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
0.-Ehuneko 3,99ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
0.-1,37 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.

.0.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,2 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,6ko tasa.
6.- Gainontzeko zerga tasak KPIren arabera igotzea

Aho batez erabaki da 2014ko Zerga Tasak onartzea. Hona hemen:
1.- Ehuneko 0,2824ko karga-tasa jartzea hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko
0.-Ehuneko 0,80ko karga-tasa jartzea landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
0.-Ehuneko 3,99ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
0.-1,37 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
.0.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,2 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,6ko tasa.
6.- Gainontzeko zerga tasak KPIren arabera igotzea (%2,6).

**4.- ELUR DENBORALEA ZELA ETA EIOZren INGURUKO PROPOSAMENA**
Alkatea, Irigaray jk. hitza hartu du eta esan du ezinezkoa izan dela proposamena prestatzea eta gaia hurrengo baterako uztea proposatu du.
Udalbatzak erabaki du aho batez gaia hurrengo bilkurarako uztea.

**5.- TOKIKO BESTEN EGUTEGI PROPOSAMENA**
Ikusirik alkateak, Irigaray jk., proposatu duen egutegia, aho batez erabaki da tokiko bestak honakoak izatea:
Inauteria Martxoak 1 eta 2
Eguberriko edo Gurutze Santuko Feria
Maiatzak 4
San Juan bestak ekainak 20, 21, 22, 23 eta 24
Eskulagintza Azoka Abuztuak 15
Larrazkeneko feria. Irailak 21
San Nikolas: Abenduak 6

**6.- IBILGAILUAK IKO EREMUAN APARKATZEKO PLAZAK EZARTZEKO DOKUMENTUAREN ONESPENA**
Irigaray jk. hitza hartu du eta jakinarazi du IKOren planeamenduak eskatzen duen ibilgailuak aparkatzeko plaza kopurua eremu horren barne dauden lursailetan etxebizitza kopurua handitzeko, plaza horietako gehienak kanpoan daudenez ezin direla katastroan isladatu, gehienez ere zola gisa agertzen dira, eta hortaz, proposatu du egingo diren aparkatzeko plaza berrien erregistroa egitea. Gaineratu du dokumentu hori PEP delakoaren dokumentazioaren eranskina izango dela eta udal arkitektoak eguneratuko duela, lan tresna gisa balioko duela eta baita arautegia kontrolatzeko ere.
Alkateak egin duen proposamenarekin ados egonik, erabaki da aho batez IKO delakoaren lusailetako etxebizitza kopurua handitzen den kasuetan egingo diren aparkatzeko plazen erregistroa egitea eta udal arkitektoa hortaz arduratzea.

**7.- AEKREN ESKAERA, INFORMATIKAKO MATERIALA ESKATUZ**
Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta AEKk aurkeztu duen eskaera irakurri du; horren bidez eskatu dute fotokopiagailua eta hiru ordenagailu uztea bere lana egiteko.
Aho batez erabaki da eskatu duten materiala uztea.

**8.- ESTATUKO TRAFIKOKO BURUZAGITZAREN ETA NUKFren ARTEKO HITZARMENAREKIN BAT EGITEA**
Alkateak, Irigaray jk. hitza hartu du eta jakinarazi du hitzarmena sinatu duela estatuko Trafikoko Buruzagitzaren eta Espainiako Udal eta Probintzien federazioaren artean informazioa trukatu eta elkarlan administratiboa egiteko. Hitzarmen horren bidez bizilagunek eskatu ahalko dute bai gidatzeko baimena zein zirkulazio baimenaren helbidearen aldaketa Probintziako Trafikoko Buruzagitzaren bulegoetara joan gabe. Udalak bidaliko du, noizean behin, Probintziako Trafikoko Buruzagitzara, posta elektronikoz, bizilagunek eskatutako altak eta helbide aldaketak, bulego horietan aldaketa horiek egin ditzaten. Horrekin lortuko da bizilagunei zerbitzua ematea eta, aldi berean, udalerrian erroldatutako guztiek ibilgailuen gaineko zerga ordaintzea.
Aho batez erabaki da:
1.- Trafiko Zuzendaritza Zentrala Erakunde Autonomoaren eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioaren arteko lankidetza hitzarmenari atxekitzea eskatzea, informazioa trukatu eta elkarlan administratiboa egiteko.
2.- Eskaera Trafikoko Buruzagitzara igortzea, beharrezko tramiteak egin ondoren, Hitzarmenari atxekitzeko Protokoloa alkateak eta Nafarroako Trafikoko Buruzagitzak sina dezaten, Udalaren datuak jakinaraziz TZNko web gunean sartu eta bizilagun guztiek jakin dezaten.

**9.- WIFIREN INSTALAZIOA ETA AURREKONTUA**
Alkateak, Irigaray jk. hitza hartu du eta azaldu du badagoela wifi sistema herri-gune osoan jartzeko aukera eta proposatu du instalazio hori egiteko aurkeztutako eskaintza onartzea; hiru igorgailu jarriko ziren, bata udaletxean, bestea kultur etxean eta bestea Erroren etxean edo Loizun, enpresa CHR soluciones Informaticas da eta aurrekontua 2.000 €.
Hortaz gain proposatu du urteko tasa kobratzea etxebizitza bakoitzeko sarearen mantentze gastuak estaltzeko eta gutxi gora behera 10€ etxebizitza bakoitzeko izango dela, hori ordenantza onartu ondoren kobratuko dela, Udalak bizilagunei ematen dien beste zerbitzu bat izango baita.
Alkateak egin duen proposamenarekin bat eginez, aho batez erabaki da Wifi jartzea herri gune osoan.

**10.- AURREKONTUKO ALDAKETEN HASIERAKO ONESPENA**
alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du beharrezkoa dela aurrekontuko hiru aldaketa onartzea: lehenengoa aurtengo aurrekontuetan oihanetako jarduketetarako partida nahikoa ez baita, bigarrena Sahararako dirurik aurreikusi ez baizen, 2012ko jarduketa

izan zelako, eta hirugarrena, lehenengoarekin bezala, mailegua amortizatzeko partida nahikoa ez baita. Hortaz, ondoren aipatzen diren aurrekontuko aldaketak onartu behar dira, Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen 212 eta ondoko artikuluen arabera:

## 1.- AURREKONTUKO ALDAKETAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 1 447 69002 | Oihanetako jarduketak | 14.500,00 |

| | |
|---|---|
| ALDAKETA OSOTARA | 14.500,00 |

FINANTZIAZIO ITURRIAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 1 870 | DIRUZAINTZAREN GORDEKINA GASTU OROKORRETARAKO | 14.500,00 |

| | |
|---|---|
| FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA | 14.500,00 |

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako Geldikinaren kargura. | 14.500,00 |

## 2.- AURREKONTUKO ALDAKETAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 1 461 48201 | SAHARAKO JARDUKETAK NK | 5.690,49 |

| | |
|---|---|
| ALDAKETA OSOTARA | 5.690,49 |

FINANTZIAZIO ITURRIAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 1 870 | DIRUZAINTZAREN GORDEKINA GASTU OROKORRETARAKO | 5.690,49 |

| | |
|---|---|
| FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA | 5.690,49 |

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako Geldikinaren kargura. | 5.690,49 |

## 3.- AURREKONTUKO ALDAKETAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 1 011 93102 | MAILEGUAREN AMORTIZAZIOA | 9.093,41 |

| | |
|---|---|
| ALDAKETA OSOTARA | 9.093,41 |

FINANTZIAZIO ITURRIAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 1 870 | DIRUZAINTZAREN GORDEKINA GASTU OROKORRETARAKO | 9.093,41 |

| | |
|---|---|
| FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA | 9.093,41 |

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako Geldikinaren kargura. | 9.093.41 |

Aho batez erabaki da aipatutako aurrekontu aldaketaK onartzea eta 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluak dioenaren arabera jendaurrean jarriko da 15 lan eguneko epean udal idazkaritzan.

**Gai zerrendatik kanpo,** gai hau sartzea erabaki da aho batez:
BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAK, NAFARROAKO GOBERNUAK ETA NAFARROAKOUDALERRI ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAK ETXEBIZITZA FAMILIARRETIK BOTATZEA DELA-ETA LARRITASUN-EGOERAK HAUTEMAN ETA IZAERA SOZIALEKO NEURRIAK HARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.
Irigaray jk. hitza hartu du eta jakinarazi du NUKFak hitzarmena sinatu zuela Botere Judizialaren Kontseilua Nagusiarekin eta Nafarroako Gobernuarekin, etxebizitza familarretik botatzea dela-eta larritasun-egoerak hauteman eta izaera sozialeko neurriak hartzeko.
Hitzarmenak ezartzen du hitzarmenarekin bat egiten duten toki entitateetako gizarte zerbitzuei eskatu ahalko zaiela ukitutako pertsonen ahultasun egoera baloratzeko, eta, beharrezkoa balitz, neurri egokiak hartzea.
Ekimen horretan parte hartzeko, Udalak erabakia hartu behar du, eta gure kasuan, gizarte zerbitzuetako mankomunitate batean gaudenez, gaia jakinaraztea. Modu berean, erabakia Federazioari jakinarazi behar zaio, Nafarroako Epaitegiei eta Lehendakaritza Departamentuari jakin arazteko.

Udalbatzak erabaki du aho batez:
1.- Bat egitea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Nafarroako Gobernuak eta NafarroakoUdalerri eta Kontzejuen Federazioak etxebizitza familiarretik botatzea dela-eta larritasun-egoerak hauteman eta izaera sozialeko neurriak hartzeko lankidetza-hitzarmenarekin.
2.- Alkateari, Irigaray j., ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko eta erabakiaren berri Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari bidaltzea.

**11.- BESTERIK**

***Landa Garapeneko Kontseilariaren bisita***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du joan den urriaren zortzian eta ezustean, Landa Garapeneko kontseilaria herrira etorri zela eta bertan ikusi zuela Bidausiko pista berria eta harekin mintzatu zela udal mapa berriaz, Mendiaundiko harrobiaz eta Lindus proiektuaz.
Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Mendiaundiri buruzko txostenak***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Landa Garapeneko Departamentuko atal ezberdinetako txostenak jaso direla, horietan oinarritu baizen ikerkuntza baimena. Horiek aztertu ondoren ikusi duela Ingurumen Kalitatekoa ezezkoa dela, Habitaten ingurukoak zalantza asko jartzen dituela mahai gainean, eta faboragarria den bakarra Lurraldearen Antolakuntzakoa dela. Berak uste zuela zerbitzu jurdikoen txostena falta zela, are gehiago ustiakuntza Alduide ZBEko intereseko habitatak dituen eremuan jarri nahi baita, eta, hortaz, txosten bat eskatu diola Beaumont-Aristu abokatuen bulegoari.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Urrobi industrialdeko UGPS***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Erroibarko alkateak gonbidatu ziola Aurizberrin egindako hitzaldi informagarri batera; horretan industrialdea handitzeko proposamena azaldu zen eta proiektua idatzi duen taldeak aipatu zuen zuzkidura-lursailean aztarnategiei buruzko zentrua jarri ahal izango dela, eta berak erantzun zuela eskualdeko aztarnategirik handiena Iturissakoa dela eta gehinbat Aurizko lurretan dagoela, eta horren inguruan zerbait eginez gero, Zalduan edo Zaldupean egin beharko litzatekeela, edo herriko gunean, eta Udala eta Kultura Departamentua ari direla gai horrekin lanean. Hortaz gain galdetu zuen herriak Aurizberriko kontzejuko lurretan Urkitzetara joateko duen bide-zorrari eragingo liokeen eta esan zitzaion hori mantenduko dela, aldaketa bakarra bidearen trazaketan egingo dela. Aipatu du jendaurrean jartzen dutenean ikusiko dela komeni den alegaziorik egitea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Kaleei zoladura jartzea:***

Alkateak, Irigaray jk. jakinarazi du Udal Plaza eta Dorrekoa eta Zubiarte karriketako zati bat zolatzeko lanak hasi direla eta Bergara etxeko atzealdeko espaloia aldatuko dela eta frontoiko zein udaletxeko euri-urak bildu direla eta Urrutia etxeko isubide eta drainatze-sistemak jabeak ordainduko dituela. San Nikolas karrikari dagokionez, Sustapen Kontseilaritzatik erabaki dutela karrika hori Etxexuri eta Agio etxeetatik Hermilio de Oloriz plazaraino zolatzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Lindus proiektua***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du hegazti migrarien inguruko jardunaldiak egin zirela Pctefa Lindus delakoari bukaera emateko eta Landa Garapeneko Kontseilaritzak konpromezua hartu zuela 2014an egitasmoarekin jarraitzeko Leader proiektuaren laguntza aprobetxatuz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Egur lotearen salmenta***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du enkantera atera duela Urdandegietan dagoen 967 pagoz osatutako lotea, 1552 m³ egur egiten dutenak, eta horien oinarrizko prezioa 32.120,66 eurokoa dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Udaletxea***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Maistraren pisua hutsik gelditu ondoren algoazilak Maisuaren pisua botako duela eta sabaiarekin batera, teilatua konpondu ondoren, berrituko dela eta bi apartamentu egingo direla, ziur aski 2014an. Hori dela eta Maria Urtasun Larrat arkitektoarekin jarri dela harremanetan. Asmoa dela ondotik maistraren

pisua berritzea eta idazkariarena eta lehen parrokiako zentroa zena berritzea eta udal bulegoak hor jartzea, zerbitzuen berrantolaketa eta udal mapa berria egiten denean sortutako udalen batasunaren ondoren sortutako beharretara egokitzeko. Azkenik, baliteke algoazila eta medikuaren pisuak Nafarroako Gobernuari uztea bi etxebizitza eta alojamendu bat egiteko, baina hori guztia sakonago aztertu beharko dela.
Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Arreserena***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Nasuvinsako arkitekto batek, Mujica jk., etxea ikuskatu zuela eta esan zuela etxea ez dagoela hondamen egoera teknikoan eta esan ziola paretetan, teilatuan eta leiho zein atarietan konponketa batzuk egin beharko litzatekela gehiago hondatu ez dadin eta arriskuak sahiesteko eta hori esan zaiola jabeari eta egin dituela teilatuaren eta pareten konponketak.
Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Landa Garapeneko Departamentuaren egituraren aldaketa***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Departamentu horretan eign diren azkeneko aldaketen ondoren gure eskualdeaz arduratzen zena, Oyaregi Arriada jk., bere postua utziko duela eta konstarazi nahi duela nekazal zein baso gaietan erakutsi duen interes eta dedikazioa eskertu nahi diola.
Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Josta-Leku frontoiaren argia***

Alkateak, Irigaray jk. jakinarazi du frontoiko argiaren fitxategia berritu dela aurrekoak hondatu baizituzten eta ezin zirelako erabili.
Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Larrialdietako Zerbitzuko zuzendaritzarekin izandako bilera***

Irigaray jk., alkateak, jakinarazi du Aezkoako Batzarre Nagusiko presidentearekin batera bilera izan zuela Ezpeleta jaunarekin, eskualdeko anbulantziaren inguruan gertatzen ari denaren inguruko informazioa jasotzeko eta Ezpeleta jaunak esan ziela bermatua dagoela zerbitzua momentu oro.
Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Euromontana.***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du abenduaren 9an jardunaldia izan zela kultur etxean eta programaren helburuak jakinarazi zirela, eta mendialdean garatu diren zenbait proiektu aurkeztu zirela.
Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Antsobiko igerilekua***

Irigaray jk., alkateak, jakinarazi du Ebroko Konfederazio Hidrografikotik jakinarazi dutela ezin dela ibaian dagoen igerilekua erabili, berak hiru urteko luzapena eskatu duela bitartean konponbideak bilatzeko eta beharrezkoa baita horrelako putzu bat edukitzea suhiltzaileen helikopteroak ura hartu ahal izateko.
Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

***Udal web gune berria***

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du web gune berria martxan jarri dela eta aurrekoa baino dinamikoagoa dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**12.- ESKARIAK ETA GALDERAK**
Ez dago.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 21:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.

----------------------------------